

AKORDEOIA - KONPOSAKETA

“SORKUNTZA BERRIARI HURRERATZEA”

RAMON LAZKANO - ALBERTO POSADAS

Zarautz, irailaren 14tik 17ra

Antolatzailekidea:

HAUSPOZ EUSKAL HERRIKO AKORDEOI ELKARTEA



ZARAUZKO UDALA

Laguntzailea:

ZARAUZKO UDALA

NORI ZUZENDUA

Akordeoiko konposatzaile, interprete eta irakasleei. Baita ere, gaur egungo artean eta bereziki musikan (batipat akordeoiaz) interesa duten musikariei.

HELBURU PEDAGOGIKOAK

Ikasleei akordeoiak musika garaikidean dituen erabilerak erakutsi eta horien berri ematea, hain zuzen, bi irakasleek musika-tresna honekin duten esperientziaren bitartez.

PROGRAMA

Bi irakasleek programa bera irakatsiko dute, bakoitzak bere ikuspegiekin:

1go eguna (Ramon Lazkano) – 3. eguna (Alberto Posadas)

- Gaur egungo akordeoi-musikara hurreratzea.
- Alderdi estetikoak, historikoak eta teknikoak.
- Analisia eta entzuketa.
- Akordeoia eta musika elektronikoaren arteko harremana (Alberto Posadas)

2. eguna (Ramon Lazkano) – 4. eguna (Alberto Posadas)

- Musikagile gonbidatuen obretan (akordeoia dutenak) sakontzea (bakarka, ganbera eta orkestra).
- Analisia eta entzuketa.

EDUKIAK

- Akordeoiak musikagileari eskaintzen dizkion baliabide teknikoak: akordeoiaren ezaugarriak eta akordeoiak konposizioan duen erabilera.
- Akordeoiak orkestran dituen erabilera eta funtzioa aztertzea, sortzaile gonbidatuen obren azterketa xehatuaren bidez.
- Akordeoia, musikagilearen sormenaren igorle gisa: aldakortasuna eta estetika desberdinetara moldatzeko gaitasuna.
- Akordeoiak ganbera-musikan eta musika-tresna solista bezala duen erabilera, musikagile gonbidatuen obren azterketa xehatuaren bidez.
- Irakasleen obrak akordeoiaz jotzea eta obrak aztertzea.

IKASLEEN HAUTAKETA

Ordenaren arabera jasoko dira eskabideak, tokiak bete arte.

Antolatzaileek, tokiak betetzen ez badira, tailerra bertan behera uzteko eskubidea erreserbatzen dute.

IRAKASLEAK

Alberto Posadas

Alberto Posadas (Valladolid, 1967), Francisco Guerrerorekin konposizio ikasketak burutu ostean, autodidakta moduan murgiltzen da musika elektroakustikoaren munduan. Haseratik musika formalduaren kontzeptuan hartzen du interesa, eta honek islada du bere musikan, konposaketa prozesuan matematika formulak eta izadia aplikatuaz. Lan ildo honi beste bi tartekatzen dizkio, batetik musika eta beste arte espresio batzuen arteko harremanetan oinarritutakoak, eta bestetik mikroinstrumentazioaren kontzeptua. Oinarri honen gainean sortzen dituen obretan, instrumentu bakoitzak mikroskopikoki dituen ezaugarri akustikoetatik sortzen du musika materialea. IRCAM-en konposatzaile eta egoiliar aritua 2006-tik 2009-ra, bideo eta dantzaz disziplinarreko obrak sortuaz.

2002-an ikusleen saria jaso zuen, *A silentii sonitu* hari laukoteaz, Bruselaseko Ars Musica jaialdian. *Ensemble Intercontemporain*-en "reading panel 2003/04"-ean hautatua izan zen, hori dela eta ensemble horrentzat obra baten enkargua jasoaz. 2009-an, bere hari-laukoteen zikloaren monografikoaren *Liturgia fractal* CD-ak Diapason d'or saria jaso zuen. Hainbat jaialdietarako enkarguak jaso ditu, hala nola Pariseko Agora (IRCAM), Donaueschinger Musiktage, Estrasburgoko Musica Festival, Casa da Música da Porto, Bruselaseko Ars Musica, Frantziako Kultura Ministeritzatik, Espainiako CDMC-tik edo Espainiar Orkestra Sinfonikoen Elkartetik. Bere musika interpretatua izan da, besteak beste, Berlingo UltraSchall-en, Pariseko Festival d'Automne-n, Lisboako Encontros Gulbenkian-en edo Zuricheko Tage für Neue Musik-en. Bere musikaz kontzertu monografikoak egin dituzte Berlin, Estrasburgo, Zurich eta Madrilen. Bere musika interpretatu dutenak: *Ensemble Intercontemporain*, *Ensemble L'itineraire*, *Ensemble Court-Circuit*, *Nouvel Ensemble Moderne*, *Quatuor Diotima*, *Arditti String Quartet*, *Orchestre National de France*, *Orchestre Philharmonique du Luxembourg*, etab, eta hauek zuzenduaz Arturo Tamayo, Pascal Rophé, Pierre-André Valade edo Beat Furrer bezalako zuzendariak. 1991 geroztik analisia, armonia eta konposizio oinarri irakasle da, gaur egun Madrileko Conservatorio de Música de Majadahonda-n.

Ramon Lazkano

Ramon Lazkanok (Donostia, 1968) pianoa eta konposaketa ikasi zituen Donostiako Musika Kontserbatorio Nagusian, non Goi Mailako Konposaketa Irakasle Agiria lortu baitzuen. Pariseko Goi Mailako Musika Kontserbatorio Nazionalean onarturik, Gipuzkoako Foru Diputazioaren burtsari esker, konposaketa eta orkestraketari ekiten die Alain Bancquart eta Gérard Griseyekin, Konposaketa Lehen Saria eskuratuz 1990ean. Sasakawa Fundazioaren burtsaduna, konposaketa eta analisisa ikasi zituen Montrealen Gilles Tremblayekin. Parisera itzulian, orkestra zuzendaritza landu zuen Jean-Sébastien Béreau eta Arturo Tamayorekin, baita XX. Mendeko Musika eta Musikologiaren Doktoretza Ikasketen Agiria eskuratu ere Pariseko Ecole des Hautes Etudes en Sciences Sociales-en .

Bere *Hitzaurre Bi* piano kontzertuarekin, 26 urte dituelarik, Prince Pierre de Monaco Konposaketa Sari ospetsua lortu zuen. Geroxeago, 1997ean, Luciano Berio burutzat duen epaimahaiak Leonard Bernstein - Jerusalem Konposaketa Saria eman zion bere *Auhen Kantuak*-engatik (Itxaro Bordak euskaratutako testuekin). 2007an, Frantziako Arte Ederren Akademiak Georges Bizet Saria eman dio; Espainiako Arte Eszenikoen eta Musikaren Institutuko, Espainiako Kolegioko eta Gaudeamus Fundazioaren sariak ere jaso ditu. Espainiako Gazteen Orkestra Nazionalarekin izandako erresidentziak Madrileko Auditorio Nazionalean eta Berlineko Konzerthausean entzundako lanak konposatzeko aukera eskaini izan zion. Stanford Unibertsitateak bere musika aurkez zezan gonbidatu zuen 1999ean, eta urte berean Luis de Pablo laguntzen du Estrasburgoko Kontserbatorio eta "Musica" Festibalarit atxikiko erresidentzian. Erroman bitan egoile izanik (lehenik Espainiako Historia, Arkeologia eta Arte Ederren Akademiaren burtsaduna, aurrerago Frantziako Akademiako laguna - Villa Medici), bertan musikagintzaz eta egun duen helburuez erreflesioa sakondu ahal izan du, intertestualitate, saturatze, isiltasun eta hotsaren eta denboraren esperientziaren gogoetan gauzatzen baitena, eta lan enblematikoak sortarazi baituena, halanola *Ilunkor* (Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren enkargua), *Lur-Itzalak* (Printemps des Arts de Monte Carloko enkargua) eta *Ortzi Isilak* (Orquesta Nacional de Españaren enkargua). Hainbat herritan eta festibal garrantzitsuetan programatua -esan, Estrasburgoko "Musica", Bruselako Ars Musica, Radio-Franceko Présences, Amsterdameko Gaudeamus Muziekweek, Copenaguen Musika Garaikidearen Nazioarteko Elkarte, Los Angeleseko Philharmonic Green Umbrella New Music Series, Alicanteko Musika Garaikidearen Festibala, ...- bere musika izen zabalduko orkestra eta taldeek jo izan dute, artean Radio Franceko Orkestra Filarmonikoak, Espainiako Orkestra Nazionalak, Los Angeleseko Orkestra Filarmonikoko Bakarlariek, Errusiako Orkestra Nazionaleko Soka Taldeak, Jerusalemgo Orkestra Sinfonikoak, RTVEko Orkestra Sinfonikoak, Bilbao Orkestra Sinfonikoak, Ensemble Recherche, Accroche Note, Ictus Taldeek, Conjunto Ibérico de Violoncellos-ek, Ensemble Wiener Collage-k... ,

Estrasburgoko Kontserbatorio Nazionalean orkestraketa eta Bartzelonan Kataluniako Musika Eskola Nagusian konposaketa irakatsi izan ditu. Egun, "*Musikene*" Euskal Herriko Musika Zentro Nagusiko orkestrakuntzako irakasle da.

DATA, IRAUPENA ETA EMANGO DEN TOKIA

DATA:	2010ko irailaren 14tik 17ra.
IRAUPENA:	20 ordu (5 orduko 4 saio).
ORDUTEGIA:	15,00etatik 20,00etara.
TOKIA:	EUSKALTEGIKO IKASGELAK Iturribidea kalea, 29-30
	ZARAUTZ

MATRIKULA (prezioak BEZ barne)

- Ikasleak:
 - Bi modulo (ikastaro osoa): **150 €**
 - Modulo bat (2 egun Ramon Lazkanorekin edo 2 egun Alberto Posadasekin): **100 €**
- SGAEko bazkideak, Autore Fundazioa/SGAEko ikasle ohiak eta Hauspoz elkarteko kideak:
 - Bi modulo (ikastaro osoa): **100 €**
 - Modulo bat (2 egun Ramon Lazkanorekin edo 2 egun Alberto Posadasekin): **75 €**

Matrikula egiteko azken eguna: 2010ko irailaren 07 edo aforo bete arte

IZENA EMATEKO ETA ORDAINTZEKO MODUA

Izen-emate orria bete, eta ordainagiriaren kopia batekin (datu guztiak argi irakurtzeko moduan) bidali, **e-mailez** info@hauspoz.org helbidera edo **faxez 943 331 931** zenbakira.

Ordainketa transferentzia bidez egin beharko da Autore Fundazioaren La Caixako kontuan: **2100 - 0079 - 81 – 0201357228**, bertan ipiniaz: Ikaslearen izen-abizenak, eta ordaindu duenarenak (pertsona bera ez bada).

* Matrikula egin aurretik, tokirik geratzen den galdetzea gomendatzen da.

INFORMAZIO GEHIAGO

HAUSPOZ
49 postakutxa
20210 Hernani - Gipuzkoa
e-mail: info@hauspoz.org
www.hauspoz.org
TEL: + 34 943 331 931 – 606 140 352

OHARRA: Ikastaroa bukatzean, ikasle guztiei diploma bana emango zaie.

Autore Fundazioak eta SGAEk, programaren edozein alderdi aldatzeko eskubidea erreserbatzen dute, baldintzen arabera.